

ataria

Berdetik marroira

Kultura

'Txotxongilo animatuak'
erakusketa berria, Topic-en

Kontsumo jasangarria

Martxan jartzera doaz
'Orendain, arduraz
kontsumitzen duen herria'

2018-11-02

951.zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus





iragarkilaburrak.eus

Bigarren eskuko bateria ederra

Artaldea salgai

**hemen
eta
online**

Musik-herria

Lehen orduko begizuloak oraindik soinean dituela, garaiz gosalduta du gaur eta kalera irten da. Musikaz beteriko egunak datoz hirian, eta berak lengoia unibertsal hori beste edozeinen gainetik maite duenez, makro-jaialdi bateko sarrerak erostea erabaki du eta leihatilara hurbildu da. Hara non iritsi den goizeko lehen ezustekoa: agortu egin dira! Alboko emakumeak ez zuen, antza, ilusio berezirik joateko, baina dio «tradizioa dela eta beharrak agintzen duela». Hark eskuratu du berea.

Arteak beste kultur adierazpenen antzerria, futbolararen sindromeak jota omen dabil azkenaldian: lehenbiziko mailako partidak jendez gainezka egon eta sarrerak, agidanez, erraz saltzea lortzen dituzten bitartean, entzun dio emakumeari musika-talde hura ikustera lau katu joan zirela azken asteburuan. Haizeak nora, zapiak hara. Baita Bixente eta alboko emakumea ere.

Ez da harritzekoa, badagoelako sarrerak agortzen dituenik. «Musikariak arrakasta behar al du? Zerk eragiten du, bada, arrakasta?», pentsatu du azkar batean. Ez al gaude kultur krisialdian? «Krisia ona da artistentzat eta artearentzat», entzun izan du beti. Eta, «zenbaterainokoa

da krisiaren eragina artetigintzan?» galdetu dio bere buari. Akaso miseriak ondratu egiten du artea eta arrakastak zikintzen? Autobus geltokirantz abiatu da eta markesinako argazki distiratsuak erantzun dio oraingoan. Jendeak ezagutzen dituen artistak muturrekoak direla pentsatzen du: arrakasta lortu, dirutza irabazi eta hedabi-

deetan iriten direnak oroitu ohi ditu herriak. Horretarako, baina, ez du beste biderik izango arrakastaren albo-produktuetan jardutea baino, pentsatu du.

Semaforoa gorri jarri da eta itxarotea dagokio, lurrera begira entzungailuak martxan dituzten oinezko-errenkadaren aurrealdean. «Zer ari ote dira entzuten?», pentsatu du. Argi dauka gustuko duela gauza ororen arrasto musikala topatzea. Usaindu ez ezik entzun ere egin ditzake hur-hurretik igarotzean, keinuek eta ibilek ere baitute euren musikalitatea.

Iritsi da etxera, eta ezin dio hausnartze-ari utzi. «Musika egin nahi duen gero eta

jende gehiago omen dago, baina gero eta gutxiago entzuteko prest daudenak. Antza, jendea ez dago kontzertuetara joateko egarri eta talde ospetsuak ikustera joaten da soilik. Topaketa masiboen ordua iristen denean, ados jarren dira elkartzeko. Baina, nor joaten da 'makro' ez den jaialdi batera? Zertara? Betiko musika, talde eta kartelak, gutxitan ekonomikoa ez den irizpideetan oinarrituta... Edozerk balio al du karpia erraldoia jendez betetzeko? Utikan, zertarako musika?»

Xehetasun, iritzi eta azalpenak emateko gaitasun patologikoa du. Isilik pasako zukeen amorrua, baina ezin izan du. Eta erosi egin ditu. Zin egin du azkena izango dela. *In saecula saeculorum.*



ELENE ARANDIA
ABESLARIA ETA
KAZETARIA

Musika egin nahi duen gero eta jende gehiago omen dago, baina gero eta gutxiago entzuteko prest daudenak. Antza jendea ez dago kontzertuetara joateko egarri

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak

bai
zehitu eta
hara erakutsi

Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarrair, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque



Nafarroan ekoiztako produktuak erosi daitezke saskietan. A. URKOLA

ERRIGORA SASKIAK ESKATZEKO GARAIA DA

Bost urte dira Errigorak 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina martxan jarri zuenetik. Eskualdeko lau herritan eskuratu daitezke saskiak.

Erredakzioa

Bost urte euskarari puzka leloa aukeratu dute bosgarren urteurrenerako. Azaroaren 14ra arte Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatzeko aukera izango da, eta diruaren %25 bertako euskalgingizari bideratuko zaio.

Bost urte dira Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina lehenengoz martxan jarri zuenetik. Euskarak eta elikadura-burujabetzak bultzatuta, bat egin zuten Nafarroa hegoaldeko eta Euskal Herriko hainbat eragilek, auzolanean aritzeko.

Harrezkero Nafarroa hegoaldeko baratzeetako uztarekin saskiak osatu eta jasotako diruaren %25 euskara hauspotzeko erabili izan dute. 2013an, esaterako, 8.000 saski baino gehiago banatu zituzten eta azken bi urteetan

14.000 banatzera iritsi dira. Guztira 800.000 euro bideratu dira bost urteotan, Sortzen elkartearen bidez, Nafarroako zigortutako zonaldeetan euskara, ikastolak eta AEK indartzera, eta sare publikoan D ereduko taldeen sorrera sustatzera.

Baina Errigoratik nabarmendu dutenez, Nafarroa hegoaldean euskarak dituen erronkak «oso handiak» dira, eta egoera horri buelta emateko, aurtengo kanpainen parte hartzea eskatu dute.

Saskiak, eskualdeko lau herritan eskuragai

23 ekoizlek osatutako bi saski izango dira aukeran: beltza –Errigoraren saski klasikoa– edo zuria –produktu bereziagoak jasotzen dituen–. Sasi bakoitza 50 euroren truke eskuratu daiteke.

SASKIAK

ZURIA

Zainzuri zuriak (Iturri, El Agricultor edo Larrinaga); Orburu-bihotzak (Ebron edo Maria Jesus); Pikillo piper osoak (El Escolar edo El Agricultor); Ardo beltz ekologikoa (Azpea, Lezaun edo Mendiko); Ozpín ekologikoa (Mendiko edo Lezaun); Zainzuri krema (Iturri); Pasta ekologikoa (Martinelli); Arroza (El Alcaraván); Tellak (Monasterio de Cascante); Ardo- eta kanela-pastak (Urrutia); Txokolatzeko cookieak (El Molinero); Piperrada (Almanaque) eta Pikillo saltsa (Maria Jesus).

BELTZA

Zainzuri zuriak (Iturri, El Agricultor edo Larrinaga); Orburu-bihotzak (Ebron edo Maria Jesus); Pikillo piper osoak (El Escolar edo El Agricultor); Ardo beltz ekologikoa (Azpea, Lezaun edo Mendiko); Ozpín ekologikoa (Mendiko edo Lezaun); Melokotoia almibarrean (Almanaque); Oliba-olio birjina estra (Bardea, Castillo de Abiltas, Ekolo, La casa del aceite edo Biosasun); Mahats-zuku ekologikoa (Ekolo); Potxak (Maria Jesus); Tomate frijitua (Pedro Luis); Almendrak (Abiltasgo kooperatiba); Borraja ekologikoa (La Churta) eta Piper txorizero mamia (Gobeiaberri).

Eskualdean lau herritan eskuratu ahal izango dira saski hauek. Anoetan, Ikastolan; Ibarra, Uzturpe Ikastolan eta Goxobi goxoki dendan; Tolosan, Galtzaundi Euskara Elkartearen bulegoan, Inmakulada Ikastolan, Laskorain Ikastolan, Lizardi Elkartearen, Orixe Institutuan eta Aitzol Udal Euskaltegian; eta Amasa-Villabonako Gaztetxean eta Zubimusu Ikastolan. Galtzaundi, Laskorain eta Villabonako Gaztetxearen kasuetan, gainera, online erreserbatzeko aukera ere bada.

Euskarari freskotasuna emateko atsotitzak

Oskia Karrera argazkilariak 'Atsotitzak Argazkitan' liburua aurkeztu du Lizardi Kultur Elkartean

Iker Larrañaga

Argazkilari tolosarrak, Oskia Karrera, egunerokoan erabiltzen diren atsotitzak argazkitan bildu ditu bere azken liburuan. *Atsotitzak Argazkitan*, irudiak eta esakerak batean biltzen dituen bilduma bat baino gehiago da. Karrera adierazi du «herriaren izaera eta jakinduria trinkoa islatu, eta freskotasuna ematen diguten esatera zaharrak» bildu dituela. Atsotitz asko gaur egungo bizimoduan zaharkituta gelditu direla dio argazkilariak. Horregatik, hizkuntza nolabait freskatzeko eta euskara ikasten ari direnentzako liburu hori sortzea erabaki du, erabilgarriak izan daitezkeen atsotitzekin. Aldi berean, «egunerokotasuneko egoerak erakusten dituzten» argazkiak esaerekin lotu ditu. 90 atsotitz eta 100 argazki inguru jaso ditu Karrera lan honetan.

Karrera Tolosako Lizardi Kultur Elkartearen babesa izan du. Elkarteak adierazi du nahiz eta kulturaren inguruan ekintza askorik ez egin, tarteka horrelako proiektuei laguntza ematen



Oskia Karrera argazkilari, bere liburu eskuan duela. I. LARRAÑAGA

dietela. Lizardiren ardatzetako bi kultura eta euskara direnez, tolosar sortzaileei babesa emateko eta laguntzeko prest daudela diote.

Abenduan, 53. Durangoko Azokako auto-ekoizleen postuan liburu eskuragai egongo dela ziurtatu du, baita bere webgunean ere.



ARRAKASTA, BOLA ETA TOKA TXAPELKETEK

Asteburu bete izan zuten Ibarako Kirol Elkartearen 52. urteurrena dela eta bazkaria egin zuten larunbatean, eta igandean bola eta toka txapelketak izan zituzten. Bola Txapelketan 48 pertsonak eman zuten izena, eta Toka Txapelketan, berriz, 26k. Irabazleak bolatan Sergio Aristi zauraztarra eta Garbiñe Alustiza zeraindarra izan ziren, eta tokan Prudentzio Olano eta Maritxu. «Herriko partaideak ere izan ziren eta haien artean aurpegi berri batzuk. Emakumeen partaidetza handiagoa bota genuen faltan, eta sari batzuk banatu gabe utzi behar izan genituen. Horregatik animatzen dugu mundu guztia parte hartzera, aurrerantzean ere izango baita aukea», azaldu zuten zuzendaritza-tik. ATARIA



Izaro Cuervo, Aroa Goenaga eta Maddi Jauregi, Joseba Zuloaga entrenatzailearekin. ATARIA

Xistera Zirkuitua Tolosara iritsiko da igandean

Beotibar pilotalekuan zesta punta partidak ikusteko aukera egongo da, 10:30etik hasita eguerdira arte

Asier Imaz

Nesken Xistera Zirkuitoak bere bi-dea egiten jarraitzen du, eta hurrengo geldialdia Tolosan izango du. Igandean, 10:30ean, Beotibarren zesta punta partidak jokatuko dira. Haste-ko, bi kiniela jokatuko dituzte eta jarraian etorriko dira bi norgehiagokak. Lehen partidari, Maialen Aldazabal eta Naroa Merino ariko dira, Loreline Cariteauren eta Naia Calvoren aurka. Bigarrenengoan, berriz, Ziortza Landak eta Eneritz Lizardik, Maddi Jauregi-ri eta Izaro Arberen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Txapelketa honetan parekotasuna da nagusi, eta puntuetan gauzak oso orekatuta daude. Igandean Beotibarren jokatuco diren bi partidek emozio faltarik ez dute izango.

Tolosako jaialdian gaur egun zestan

ari diren neskari gehientsuenak ikusi ahal izango dira, eta Euskal Herriko klub ezberdinak ordezkaturak egongo dira Beotibarren ikusi ahal izango diren neurketetan.

Etxeko pilotariak

Izaro Cuervok 13 urte ditu eta tolosarra da. Aroa Goenagak adin bera dauka, eta bera ere tolosarra da. Maddi Jauregi belauntzarra da, eta 11 urte ditu. Hirurak Beotibar Zesta Punta Elkarteko pilotariak dira, eta igandean Beotibarren izango dira txuriz jantzita. Joseba Zuloaga da euren entrenatzailea. Aste-an bitan elkartzen dira Tolosako Beotibarren eta Uzturpe frontoian. Zuloaga-rentzat Xistera bezalako ekimenak oso garrantzitsuak dira: «Euskal Herri osoko elkarte guztien artean sortu zen zirkuitu hau, elkarteko pilotariak zesta puntan jokatu ahal izateko. Gero eta neska gehiago dabilta, eta hori oso aberasgarria da zesta puntarentzat». Igandean, Beotibarren, etxean ikasia erakusteko aukera izango dute etxeko-en aurrean eskualdeko pilotariak.

Tolosa CF-Aurrerako bost bikote finalerdietan

Gipuzkoako Binakako Txapelketako esku pilota partidak Lazkaon eta Tolosan jokatuco dira

Erredakzioa

Ostegunean hasi ziren Gipuzkoako Binakako Txapelketako finalerdiak jokatzeko, esku pilotan. Tolosako Beotibarren eta Lazkaoko Barandiarainen jokatuco dira guztiak, eta Tolosa CF-Aurrera Elkartek bost bikote sartu ditu lehia horietan.

Lehenak jokatzeko Labaka-Telletxea izan ziren, atzo jokatu baitzuten nagusien mailako euren finalerdia.

Gaur, 18:00etatik aurrera, Beotibarren lau finalerdi jokatuco dira. Lehen partida, Oiarzungo Oiarpeko Aburuza-Olaizet jokatuco dute, Tolosa CF-Aurrerako Amiano-Suduperen aurka. Bigarren partidari ez da eskualdeko ordezkariarik egongo. Hirugarrenengoan bai, Tolosa CF-Aurrerako Lasa-Etxeberriak Lazkaoko Senar-Uranga izango dituzte aurkari. Laugarren eta azken partida etxeko elkarteko lau pilotariren artekoa izango da. Tolosa CF-Aurrerako ordezkariak hauek izango dira: Altuna-Ugartemendia eta Goikoetxea-Elola.

Lazkaon jokatuco den beste finalerdian, igandean, Alegiako Intxurreko pilotariak ariko dira lehian. Zubiria-Irazustabarrenak Lazkaoko Zubizarreta-Garmendiarren aurka jokatuco dute. Partida 11:00etan hasiko da Jose Miel Barandiaran pilotalekuan, azaroaren 4an.

Tolosa CF-Aurrera elkartetik azaldu dutenez, euren pilotariak oso maila onean dabilta Gipuzkoako binakako txapelketan, eta horregatik, zoriondu eta animatu egin dituzte.

TALDE NAGUSIAK

LASKORAINIKASTOLA

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 18:00etan, Tolosako
Usabal kiroldegian.

LAUBURU IBARRA

Eskoriatza

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.
Ibarrako Belabieta kiroldegian,
ostiralean, 21:15ean.

Ordizia

ANOETA FT

Zubiagatik asteartean jokatu zen areto
futbol partida, Gipuzkoako Ligan, 2.
jardunaldia. 3-0 galdu zuten
eskualdekoek.

SAMANIEGO ORIXE

Idiazabal

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.
Tolosako Uzturpe frontoian, ostiralean,
22:00etan.

Navarvoley

TOLOBOLEI BIDE BIDE

Boleibola. Bigarren Maila.
Igandea, 11:30ean, Iruñean.

TOLOSA CF

Amaikak Bat

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko
Maila. Larunbatean,
16:30ean, Tolosako Berazubín.

Trintxerpe

BILLABONA KE

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Larunbata,
17:30ean, Pasaian.

DANENA KE

Lengokoak

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Osteguna, 17:00etan, Zizurkilgo
Elbarrena futbol zelaian.

Trapagaran

TOLOSA CF

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila.
Larunbatean, 18:345ean,
Trapagaranen, Valle de Trapaga
kiroldegian.

Rodamientos Arizti

TAKE REDLINE MEKANIKA

Saskibaloia. Lehen Maila.
Larunbatean, 17:00etan,
Gasteizko Ibaiondo
kiroldegian.

Añorga Saskibaloia

TAKE ARALAR KIROLAK

Zubiagatik asteartean jokatu
zuten laugarren jardunaldiko
partida TAKE-ko jokalariek.
Añorgaren etxean izan zen
lehia eta eskualdekoek
60-54 galdu zuten.

LARUNBATA AZAROAK 3

IRUÑEA

LABRIT PILOTALEKUA

17:15. Pilota jaialdia:

- Agirre-Salaberri/Alberdi-Erasun.
- Lau eta erdiko txapelketako finalerdia:
Jokin Altuna eta Oinatz Bengoetxearen
arte.
- Artola-Aretxabaleta/Laso-Albisu.

IGANDEA AZAROAK 4

TOLOSA


BEOTIBAR PILOTALEKUA

10:30. Nesken Xistera Zirkuitua. Zesta
punta partidak.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

16:30. Ogi Berri Migel Soroaren
Oroimenezko pilota txapelketaren
jardunaldia.



Larunbatean jokatu du Altuna III.ak. ATARIA

**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Osteguna, 1 • 16:00
Jubenil ohorezko maila
BILLABONA FKE - ALOÑA MENDI K.E

Larunbata, 3 • 11:00
Kadete 1. maila
BILLABONA FKE - MUNDARO F.K.E

Igandea, 4 • 15:30
Infantil txiki maila
BILLABONA FKE - LAZKAO K.E



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Eskuin muturraren gorakada

Fenomeno kezkarri baten aurrean aurkitzen gara Europa osoan eta ausartuko nintzateke esatera, mundu osoan. Ez baita Espainiakoa edota Europakoa bakarrik, hor ditugu AEBak Trumpekin, Kolonbia, Argentina, Paraguai, Brasil, Ekuador... Ameriketako, eta Turkia, Israel, Arabia Saudi, Maroko, eta beste hainbat eta hainbat estatu non eskuina edota eskuineko diktadura ankerrak agintean dauden amerikarren eta NATOk nazioen bedeinkazio guztiekin. Eta eskuinak ia beti ustelkeria dakar eta pertsonon eskubideen murrizketa gutxi batzuen eskubideak, diru-bideak eta gehiegikeriak ziurtatzeko.

Gurera etorrita hainbestearinokoa da ustelkeria non Rodrigo Rato sartu da espetxean, baina nahiko isilik pasatu da. Pentsatu Kataluniako gobernuak sartzu zituztenean zer nolako zintzarri hotzak, albisteak, tertuliak, gehiegikeria jasan behar izan genuen, baina Urdangarin edo Rato sartu dituzte eta saldutako prentsa osoa ia isilik geratu da, albisteak letra txikian eta ezkutuko txoko batean azalduz. Erregearen gehiegikeriak ere estali egin dira, jendeak horretan pentsa ez dezan eta horretaz hitz egin ez dezan. Eta ez hori bakarrik, Pablo Casado bezalako txoropito titulu-faltsutzaile batek ozen aldarrikatu digu «gora gure erregea» esan behar dugula, PPn ez dela sekula ustelkeriarik egon, partidu zintzoa eta garbia dela... Norbaitek Pedro Fra-Casado deitu dio. Nahiago nuke egia balitz. Eta non daude Espainiako kazetariak, telebistetako esatariak, tertuliak, intelektualak... esateko hori gezur handi bat dela, PPren agintaldia eta Rajoyren gobernu ustelkeriaren muturreraino iritsi zirela, epaileak eta fiskalak ere manipulatzeraino eta beren kidekoak jartzearaino Epaitegi gorenean.

Eta okerragoa dena oraindik OPUS erakunde erdi-klan-destino eskuin muturrekoa sartuta dago PPren barruan eta sistema judizial osoan. Diotenez Espainiako epaileen heren bat, hirutik bat, OPUSkoa da eta jakina da Jorge Fernandez Diaz, barne ministerioko kide ohia, De Guindos, Federico Trillo, Juan Cotino, Jesus Cardenal fiskal ohia, Ana Palacio, Jose M^a Michavilla... eta beste asko ere OPUSeko kide direla eta eskuin muturraren ustelkeriaren

aurrean isilik egon direla edota ustelkeria hori probestu dutela beren karguetan egoteko eta beren gobernukideekin aberasteko eta eskuineko politika zital eta zapaltzaileak inposatzeko.

Bitartean, PPk jarritako epaile horiek Altsasuko gazteak espetxean dauzkate injustizia izugarria eginez, euskal presoak zigor eta mendekuaren pean dauzkate, etxetik urrun, beren zigorraren zatirik handiena beteta eduki arren. Eta ez hori bakarrik baldintzarik gogorenetan dauzkate, 20 ordu edo gehiago gela itxietatik atera gabe, giza-eskubideak eta pertsonaren eskubide

zibilak urratuz eta gorrotoa eta mendekua aplikatuz. Hori al da OPUSek eta Eliza katolikoak beren kardinal eta gotzainekin bedeinkatzen dutena? Munilla non dago ankerkeria hauek kondenatzeko? Nola arraio ez dute beren ahotsa altxatzen injustizia kriminal honen aurrean? Estatuaren agindura terrorismoa praktikatu zuten kriminalak, Galindo, Barrionuevo, Vera, Elgorriaga, Amedo eta beste hainbat aske daude, beren zigorraren zati nimiño bat bakarrik beteta eta hori baldintzarik bigunetan, espetxea baino gehiago hotelak ziruditen egoitzetan, mariskoa jan ez eta xanpaina edanez.

Hauxe da eskuin muturrak ekartzen duena: ezkerrekoentzat eta be-

ren etsaientzat mendekuz beteriko injustizia eta zigorra, herritarrentzat pobrezia, etxegabetzeak, soldata miserableak, eskubideen urraketak, eta bere jendearentzat eta batez ere agintean edo boterean daudenentzat lapurreta librea, ustelkeria, neurritz kanpo eta modu tranposoan aberastea, jende xehea miseria gorrian utziz.

Noizbait konturatuko al gara eskuin muturrak eta agintari ustelek daukaten arriskuaz eta ekartzen diguten miseriaren eta eskubide murrizketaz. Beraiek salbatazaila gisa agertzen dira, gu edo miseria, gu edo kaosa, bezalako sloganak erabiliz, baina benetan gertatzen dena da haiekin datorrela miseria, kaosa eta giza eskubideen murrizketa, pertsonak eta hauen morala eta duintasuna zarpailduz eta balio gabeko trapu zahar gisa utziz.



IÑAKI ZUBELDIA
KALE KANTOITIK 107.6 FM

Kontsumo jasangarriari bultzada

‘Orendain, arduraz kontsumitzen duen herria’ proiektuaren bitartez, egunerokotasunean herritarrek hartzen dituzten kontsumo erabakietan eragin nahi du Orendaingo Udalak. Horretarako diru laguntzak edo pizgarriak zehaztu ditu bost eremutan: ura, elektrizitatea, mugikortasuna, bertako produktuak eta komunitate izaera.

09

Imanol Garcia Landa

Azken bi urteetan «energetikoki autaskeak» izateko programa bat sortu dute Orendainen, Gorka Egia alkateak azaldu duenez. Horren barruan dago kontsumoa murriztea, herritarren aktibazioa eta herritarren kontsumo ohiturak jasangarriagoak izateko diru laguntza sorta bat martxan jartzea.

Murrizketari dagokion zati handiena egin dutela dio Egiak. Udaletxeko berogailuaren kontsumo murrizketari begira, leihoak eta atek aldatuta daude; bestalde, barneko argiteria guztia led teknologiarara aldatu dute, eta hori bera kaleko argiteriarekin egitea falta zaie, urtea bukatu aurretik egin asmo dutena.

Bestalde, energia fosila ez kontsumitzeko helburua dute, eta pausoeta-

ko bat egungo udaleko autoa aldatzea da, auto elektriko batengatik, eta eguzki plaken bitartez kargatzea. «Baina, diru laguntzarik jaso ez dugunez, hurrengo legegintzaldirako etxeko lan bezala geratu da hori», esan du alkateak. «Hurrengo legegintzaldirako geratu den beste proiektu bat udaletxeko berogailua gasolinazkoa izatetik pelletarakin funtzionatzera pasatzearena da. Jarriko duguna auto elektrikoak kargatzeko kargagailu publiko bat izango da».

Gizartea aktibatzeko proiektua ere martxan jarri zuten eta *Transition Town* mugimenduan sartuta dago Orendain. Horren bitartez jasangarritasunaren inguruan kontzientzia hartuko zuen talde bat eratu nahi zuten herrian, parte aktiboa izan eta proposamenak herritarrei eta udalari egiteko. Alor horretan diru laguntzarik jaso ez dutenez, hanka motz gelditu da proiektua.

Orain buru-belarri dabil udala

Orendain, arduraz kontsumitzen duen herria proiektuarekin, herritarrek kontsumo ohitura jasangarriak izan ditzaten bultzatzeko. Horretarako pizgarriak edo diru laguntzak zehaztu dituzte eragin nahi duten bost eremutan: uraren kontsumoa, argindarraren kontsumoa, mugikortasuna, bertako produktuen kontsumoa eta komunitate izaera. «Gai hauek dira, hondakinekin batera, mundu mailan erronkatzat jotzen direnak», esan du Egiak. «Ideia nagusia da globalki pentsatzea eta tokian bertan ekitea. Hondakinen eremuan Zero Zabor Herria gara eta hondakin guztiak bereizten ditugu. Eta pentsatu duguna da zer egin dezakegun beste bost eremu horietan jasangarriago jokatzeko herritar bezala. Diru laguntza eta pizgarri hauek martxan jarri ditugu hiru urterako, jendeak bere kontsumo ohiturak alda ditzan, eta aurrerantzean espero dugu Orendainek, udalak zein herritarrek, ibilbide horrekin jarraitzea».



Egitasmoa ezagutzera emateko Orendaingo ekoizleak herriko plazara atera ziren, iraillean, produktuak saltzera. R. CALVO

Gehienez 100 litro ur pertsonako eta eguneko

Ur kontsumoari dagokionez, Orendainen eguneko 124 litro kontsumitzen dira pertsonako batzaz beste. «Pizgarria izango da pertsonako 100 litro kontsumitzen duen etxearentzat, urte bukaeran 20 euroko diru laguntza», esan du Laida Plazaola udaleko partaidetza teknikariak. «Kontuan izan behar da gainera, 110 litro baino gutxiago kontsumituz gero, Ur Kontsortzioaren barremazioaren arabera, prezioa murriztu egingen dela».

Egun herrian kontsumitzen den litro kopurua beste herrieekin alderatuz ez dela hain altua esan du Plazaolak. Egiak azaldu duenez, «hainbat base-ritarrek herriko urak erabiltzen dituzte eta lur azpiko urak ere bai azken zortzi urte hauetan, eta hor herriaren kontsumoa asko jaitsi da. Egia da, lehenengo aldiz entzutean kopuru hori izugarria iruditu daitekeela. Hain justu, diru laguntza lerro honen xedea ez da hainbeste diru laguntza ematea, baizik eta kontzientzia hartzea zenbat ur kontsumitzen dugun».

Diru laguntza emateko baldintzeta bat pertsonako 100 litro ur kontsumitzera jaitea da, eta bestea filtroak jartzea etxeko ur txorrotetan. «Filtro

horiekin %40 edo 60 aurrezten da. Sukaldean eta bainugelan ere jarri behar dira, eta dutxetan beste filtro batzuk jartzen dira. Datu bezala, bainugelan hortzak eta musua garbitzeko, eta dutxatzeko filtroak jarrita baldin baditugu, eguneko 19 litro inguru aurrezten ditugu», azaldu du Plazaolak, eta gaineratu: «Datu hauek ikusten ditugunean hartzen dugu kontzientzia, ekin-tza oso sinpleekin pauso handiak egingen ditugula».

Argindarraren eremuan helburua etxe guztietan energia berdea kontratatua izatea da, bai etxe bakoitzak bere konpainian aldaketa eginez, edo Goien-er edo beste kooperatiba batekin kontratatua eginez. Urte bukaeran 20 euroko diru laguntza emango dio udalak energia berdea kontratatuta dela erakusten duen etxeari. «Mundu guztia ados egongo bagina eta energia berdea kontsumituko bagenu, horrek esan nahiko luke gure konpainiak behartuta egongo liratekeela jatorri jasangarriko energia erostera», esan du Egiak. «Eta hori izango litzateke energia nuklearra, termikoa eta hain kontra gauden energia sortzeko bide horiek gelditzeko modu eraginkorra. Azkenean kontzientzia hartzea da kontsumitzaile bezala ikusteko ze in-

dar dugun mundu hobe batean bizitzeko».

Mugi txartela eskuratzea

Eragin nahi duten hirugarren eremua mugikortasunarena da. «Orendaindik Donostiarako joan-etorria, autoz egingen badugu 15,52 kg CO2 isurtzen dugu airera; aldiz, autobusa hartzen badugu 2,30 kg isurtzen dugu», esan du Plazaolak. «Poltsikoan ere eragina du: garraio publikoan joanez gero 4,35 euro da kostua eta autoz joanez gero 8 eurokoa, eta gainera aparkalekua behar izaten dugu». Orendainek taxibus zerbitzua duela gogorarazi dute, eta hori eskarikoa dela. «Sustatu nahi duguna da autoa alde batera utzi eta zerbitzu hori erabiltzea», esan du Plazaolak.

Horretarako beharrezkoa da Mugi txartela izatea, eta nahi duen guztiari lagunduko zaio udaletik txartel hori lortzen. Egiak gogora ekarri du kontzientzia hartzea dela helburua. «Orendainen dugun garraio publikoa ez da munduko onena, baina dagoena ez dugu erabiltzen eta erabiliko balitz hobetzeko aukerak egongo lirateke». 2018 bukatu baino lehen helburua herriar guztiek Mugi txartela ateratzea da. «Ea horrekin ere pixkana garraio publikoa gehiago erabiltzen den»,

esan du Egiak. Ere-mu honetan, Mugi txartela duen eta gutxienez hilean 10 joan-etorri egiten dituen herritarrari, 20 euroko laguntza emango zaio urtean, udaletik.

«Askotan ez dakigu zer zerbitzu ditugun, eta proiektuaren bitartez jendeak ikusi du zer dagoen, eta jarrera positiboa izan da», zehaztu du Plazaolak. «Kontuan izan behar da taxibusaren prezioa autobus batena dela», gaineratu du Egiak. «Eta zortea dugu bizi garen lekuan bizitzeaz. Zure bila taxi bat etorriko zaizu eta autobusaren prezioan jaitziko zara Alegiara eta joango zara Tolosara, txartel bateko prezioarekin. Euro eta gutxiko kostuarekin».

Bestalde, taxibusa dagoelaikusarazi nahi izan dute autobus geltokiak jarri, eta etxeetara ordutegiak bidaliko dituzte, trenarekin dauden lotura guztiekin batera.

Bertako produktuen kontsumoa da diru laguntzen laugarren eremua. «Hau izan da bertako herritarrei gehien gustatu zaiena», esan du Plazaolak. «Orendainen asko ohituta gaude bertako produktuak kontsumitzera, eta dagoeneko egiten dugun gauza bat saritu egingo dela ikustea gustura har-

tu da». Sasiango Baratz, Argaia Goena baserria, Zelaieta artisau gazta, Larrera esnekiak eta Orendaingo Errota sartu dituzte bertako produktoreen zerrendan. Ekoizle horien produktuetan 50 euroko gastua egiten den bakoitzeko udalak 10 euro emango dizkio herritarrari, urtean gehieneko diru laguntza 100 eurokoa izango delarik. Herritarrek txartel batzuk jasoko dituzte, eta bertan ekoizleak beraien zigilua eta kontsumitzaileak gastatutako dirua zein erosketa egin dueneko data jarriko ditu.

Egiak azaldu duenez, CO2 isurketetan eragin handienetakoa enpresek dute, bigarrena garraioa da, eta hirugarrena elikagaien garraioa. «Ohituta gaude Peruko lekak jaten, Txinako arroza kontsumitzen, Japoniako atuna ekartzen, eta hemengo bakailaoa Norvegiar saltzen eta hangoa hemen erosten», esan du. «Merkatuak zentzugabeko funtzionamendua du, eta horrek ikaragarritzko CO2 isurketa

harko genuke, hor ditugulako, eta gure gertukoak direlako», esan du Egiak.

Herriari eta herritarrei atxikimendua

Komunitate izaeraren eremuan, hain justu, izaera hori sortzea da helburua. «Sustatu nahi dugu Orendain elkarren eraginean bizi den herri bat izatea», dio Egiak. Ingurumenaren alorrean izango diren erronkei ezingo zaiela erantzun maila indibidualean gaineratu du: «Ezinbestekoa izango da elkarrekin erabakiak hartzea, elkarrekin aldaketak ematea, eta kontzientzia herritar guztionak izatea». Komunitate izaerarekin harreman estua auzolanak duela diote. Kasu honetan, ez da diruz lagunduko auzolanean parte hartzea, baizik eta herriko produktuekin osatutako saski bat emango zaie parte hartzaileei.

Auzolanak beste ezaugarri bat ere baduela zehaztu du Egiak: «Nik herri-

eragiten du». Bertako produktuak kontsumitzeak jasangarritasunean eragiteaz gain, bertako ekonomian ere eragiten duela gaineratu du. «Dirua gastatu behar badugu, gure inguruan gastatu be-





Ur txorrotetan eta dutxetan jarriko diren filtroak.

tar bezala eskubide batzuk ditut, baina uste dut eskubideak ezin direla ulertu betebeharririk gabe. Herri bezala eta udal bezala ere urtero planteatu dugu herrian dagoen diruarekin zer egingo dugun denon artean erabakitzea. Baina gero badago betebeharririk bat, dirua tartean sartu gabe, gutako bakoitzak herriari egin diezaiokeen ekarpena. Lortu nahi dugu familia bakoitzetik norbait azaltzea herriaren intereserako diren lantxoak egitera». Plazaolak gaineratu duenez, «auzolanak, batetik, herri lotura bat sortzen du, eta, bestetik, egindako lanarekin konpondu edo hobetu duzuna gehiago maitatu eta zaintzen duzu. Herriarekiko eta herrian bizi garenekiko atxikimendua areagotu egiten du».

Orain arte batez ere *Orendain*, arduraz kontsumitzen duen herria proiektuaren informazioa zabaltzen aritu dira, eta orain kudeaketaren txanda iritsiko da, besteak beste, energia berdea kontratatzeko laguntza eskainiz. Hiru urtez emango dira laguntzak eta pizgarriak, lehenengoa 2019a izanik. Hortik aurrera, herritarrek arduraz kontsumitzeko bideari eutsiko diotela espero dute udaletik: «Kontsumo ohituren inguruko kontzientzia hartzea da proiektuaren helburu nagusia».



«BEHAR DUGUN ELIKAGAIA BERTAN SORTZEA NIRETZAT EZINBESTEKOA DA»

AINTZANE GARMENDIA
BASERRITARRA

Argaia Goena baserriko Aintzane Garmendiak parte hartzen du Orendaingo Udalak martxan jarri duen proiektuan, eta txerri eta txahal haragia saltzen ditu. Gustura dago ekimenarekin «herri mailatik ez bada babes bat hasten, alfer-alferrik ari gara», dio.

I.G.L.

Orendain arduraz kontsumitzen duen herria proiektuarekin eragin nahi duten eremuetako bat bertako produktuak kontsumitzea da. Aukeretako bat da Argaia Goena baserriko Aintzane Garmendiak (Amezketako, 1987) ekoizten dituen produktuak erostea.

Zer iruditzen zaizu proiektua?

Oso ondo iruditzen zait. Batetik Ar-

gaia Goena Amezketako baserri bat da eta esan behar da Orendaingo Udalak Orendaingo produktore bezala onartu gaituela egitasmo honetarako, eta, beraz, eskertuta gaude. Bestetik, denok dakigu baserria ez dela lanpostu izar bezala ikusten; orduan, herri mailatik ez bada babes bat hasten, alfer-alferrik ari gara. Beraz, ikustea badagoela udal bat bere diruak kudeatzen dituen baserria bultzatzeko, oso ondo iruditzen zait. Uste dut hortik hasi behar dela,



txikitik handira joan behar dela, herrietatik gainontzekoetara joan behar dela. Baserria ez dugu guk mantentzen. Baserria guri haragia erosten digunak mantentzen du. Behar dugun elikagaia bertan sortzea niretzat ezinbestekoa da, burujabea den herri batek ez baitu beste inoren beharrik, eta hori da herri honek behar duena, burujabe izatea, menpekotasunetik ateratzeko.

Nola espero duzu eragingo dizula proiektuak salmentetan?

Orendaindarrek kontsumitzen dituzte gure produktuak, eta alde horretatik oso eskertuta gaude. Errepikatu egiten dute, deitu egiten gaituzte eta oso gustura gaude. Oraintxe jarri da martxan eta oraindik ez dakigu zenbaterainoko eragina izango duen, baina uste dut ohitzen bagara udalak atera dituen txarteltxo horiek erabiltzera, nik uste dut funtzionatzeko arazorik ez lukeela egon behar. Kontsumitzen den diruarekiko ematen den laguntza oso ona dela iruditzen zait, kontuan hartzekoa da.

Nola saltzen dituzue produktuak?

Guk supermerkatuetara ez dugu ezer eramaten. Inoiz ez da inoiz esan behar, baina gure filosofia beste bat da

eta saiatu nahiko nuke supermerkatuetara ez eramaten. Ez da supermerkatuen kontra ezer dugunik, baina supermerkatuetan ordaintzen dute beraien baremoetan sartzen dena. Guk animaliak hezteko dugun filosofiagatik, behar dituen zereal guztiak eta behar duen erritmoa emanez, bizkortzeko produkturik eta transgenikorik gabeko kalitate handiko pentsuekin haziz, ez du ia margenik ematen supermerkatu handietan sartuz gero. Beraiek irabazi egin behar dute, eta zuk kostuak jaitsi egin behar dituzu, eta guk ikusten dugu kostuak jaitsi behar horrek, gaur egun hezten dugun bezala egitea ekidin egingo ligukeela. Beraz, zuzeneko salmentan ari gara. Egia da, Orendaingo egitasmo hau bezala, gu ere hasiberriak garela, eta abenduan ekin genion nahiko poliki. Gure gaur eguneko salmenta, animaliak hiltegia ditugunean, kontsumitzaileak izan daitezkeenei abisua pasatuz izaten da.

Zer produktu saltzen dituzue?

Txekor haragia eta basoko txerriaren haragia eta txerriak. Bi lote mota ateratzen ditugu. Batetik, bost kilokoa, eta bertan txuleta, hirugiharra, xerrak, saltxitxak, hanburgesak eta saiheski

zati bat joaten da. Bestetik, hiru kilokoan berdina joaten da, saiheskia izan ezik. Eta gero, aparte, hanburgesak, saltxitxak, txorixoa, eta txistorra lotez kanpo erosi daitezke, bi kiloko gutxieneko eskariarekin. Izan ere etxera eramaten dugu, eta garraioa ez dugu kobratzen. Pixkanaka goazen honetan, webgune bat egin nahiko genuke, Internet bidezko denda bat sortuz, jendeak bertatik eskariak egiteko. Bestalde, Orendaingo egitasmoaren bidez, azoka bat egin zen herrian, eta gure abiapuntua izan da azoketan. Aurretantzean gehiagotan egon nahi dugu. Produktuak nahi dituenak 650662035 zenbakira deitu edota agarmendia87@hotmail.com helbidera idatzi dezake. Normalean jendeak eskatzeko erabiltzen duen bidea whatsapp-a izaten da. Beraz, kontsumitzaileak nahi duen bidea erabili dezala kontaktuan jartzeko.

Nola hezten dituzu abereak?

Urtean lau hilabetez izaten dugu txekorra, eta txerria urte guztian. Atentzioa deitzen dit jendeak galdetzen didala ea zer ematen diogun jateko txekorrari zapore hori izateko. Milagrorik ez dugu egiten, gure aitona erakutsi zigun bezala segitzen dugu txekorra hezten, garagarra, zahia, arto-txikitua, baba handia, eta kalitate handiko pentsua emanez. Eta txerriari dagokionez, esan daiteke erdi basatia dela. 80.000 metro koadroko baso bat dugu, zuhaitz ezberdinekin, eta hor txerriak libre daude. Haragiaren kolorean antzematen da hori. Mugimenduan dagoen animalia denez, haragia pixka bat gorrixegoa da, eta koipean ere antzematen da, jan erraza baita. Gaztainondoak eta haritzak ditugu, eta horrek esan nahi du, garaia denean horien fruituak jaten dituztela.



IZURRITEA BIDE

Pinuen gaixotasunak aukera bezala ikusten dituzte askok; orain arte egokia izan ez den basogintza politika irauli dezakeela diote. Etekin ekonomikotik harago, zer landatu beharko litzatekeen, zerbait landatu behar ote den eta gaixotasunei aurre egiteko zer egin daitekeen izan du 'ATARIA'-k aztergai.

Rebeka Calvo

F Tolosaldeko herri bat baino gehiagotan pil-pilean dagoen gaia da. Ingurura begiratu eta udazken koloretan ikusi ahal ditugu bazter asko, baina bada ezinegona sortzen duen kolorerik ere; intsinis pinuek hartutako kolore marroi-gorritzat. Izurrite baten ondorio da, *Dothistroma pini* eta *Lecaonosticta acicola* izeneko onddoek gaixotu dituzte, eta ondorioz xingola marroia eta xingola gorriak jota daude. Ez dira gaixotasun berriak, mutazioak dira, hostoetan sortzen diren onddoak dira, eta lehortu egiten dituzte, hortik kolore marroi-gorritzat, eta hortik ere ez direla hazten, gaixotasunak fotosintesia ez egi-
tea dakarrelako, eta beraz, moztu egin behar dira, askok landatzean bilatu zuten erren-
tagarritasuna galduz.

Ez da lehen aldia, ordea, gaixotasun horiek ez dira orain azaldu. 1975. urtean jada onddo batek baino gehiagok kalte-zituen pinuak, 1997. urtean ere zabaldu zen, baina 2008tik hona piztu dira alarmak. 2012tik aurrera egin du nabarmen gora, dena den. Tolosaldean gogor jo du izurriteak eta pinudien bi herenetik gorako afekzioa dago. Datuei erreparatuta esan behar da Gipuzkoako baso eremuarekin alderatuz, Tolosaldeko basoek, herrialdeko basoen %18 osatzen dutela. Eskualdean ere kezka iturri da beraz, pinuen osasuna.

Egoera honek, dena den, aukera berriak irekitzen ditu. Hori da batetik eta bestetik entzun daitekeen kontuetako bat: hondamendi ekologiko eta ekonomikoa izan liteke, baina aurreratzean zer egin erabakitzeke aukera ere ireki dezake. Gipuzkoako Basozainen elkarteak da iritzi hori plazaratu duen agenteetako bat.

«Batzuk intsinis pinuarekin jarraitu nahi dute eta berriro landatu dute. Askok nahiago dute espeziez aldatzea eta eukaliptoa aukeratzen dute (...). Beste zuhaitz espezie batzuk ere aukeratzen dira, bai ipar-amerikarrak (*Douglas* izeia, sekuoiak, akazia) bai asiarrak (Japoniako zedroa). Halere, baso jabe bakar batzuk bertako zuhaitzen alde egiten dute eta pagoak, haritzak, lizarrak edo gereziondoak landatzen dituzte, edo landatu beharrean, basoa bere kasa datorrela uzten dute. Azken aukera horrek, hala ere, ez du inongo laguntza publikorik jasotzen», esan dute ohar bidez.

Pinudien jabeek Gipuzkoako Foru Aldundiaren edota Eusko Jaurlaritzaren gomen-dioen zain daude, oro har. Gipuzkoako Foru Aldundiak dio onddoak intsinis eta *Pinus ne-gra* pinudien %36ari eragin diola, eta bi norabidetan ari da lanean: batetik, gaitza sendatzeke saiakera egiten ari da

eta, bestetik, diru laguntzak ematen ditu, pinuak mozteko. Izan ere, pinu guztiak ez daude gaitzak jota, eta osasuntsu dauden horiekin ari dira lanean, sendatu ahal izateko dauden tratamendu fitosanitarioak aztertzen ari direlarik. Diru laguntzak berriz, badu baldintzarik, moztu eta gero zuhaitzak landatu behar dira, beti ere landatzen dena eukaliptoia ez bada, aukeratzen den espeziak erresistenteak behar dute izan. Diru laguntzak batik bat, hazkuntza moteleko espezien alde ematen dira, ekoizpenerako horren interesgarriak ez diren espezieak ere babesteko.

Polemiken gaineko polemika pila-tzen ari da gaiaren inguruan, eta tratamendu fitosanitarioei lotuta bada ahoz aho dabilen gaia, kobre oxidoa fumigatzearena. Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek Espainiako Gobernuari eskatu diote jada xingola marroia eta xingola gorria gaitzek jotako pinudiak fumigatzeko baimen berezia. Eta horren aurrean kexak nagusitu dira. Naturkon erakunde naturalista eta kontserbazionistak biltzen dituen kolektiboa da horietako bat. Baimen hori tramitatzen hasiak direla salatu dute eta fumigatzea «kontrola ezina» dela esan du. «Abiadura horiekin airez zabaltzen den produktua nora joango den ezin denez kontrolatu, Europako Batasunean airezko tratamendu fitosanitarioak debekatuta daude, oso kasu bereziak izan ezik», gogoratu du. Eta debekua arrazoitua dela ohartarazi du: kobre oxidoa arnastea toxikoa dela dio eta bronkiei eragiten diola nabarmendu du. «Uretako faunarentzat, gainera, oso toxikoa izateagatik, administrazioak berak tratamendu hauetan 50 metroko segurtasun muga errespetatzea exijitzen du». «Azalduko al digite gure ordezkari-

rieke nola pentsatu duten ziurtatzea gure ibaiak eta edaten dugun ura ez direla pozoituko gure mendietako 124.000 hektarea fumigatzen badi-ra?».

Ekologistak Martxan ere iritzi berekoa da, eta harago joan da, «ingurumenaren kontrako atentatu» bezala aurkeztu du. 40.000 hektarea baino gehiagoko azalerari ezarriko liokete tratamendua eta hori zentzugabetzat jo du. Kobre oxidoa zer den ere azaldu du. «Kobre oxidoa espektro orokorreko biozida gisa sailkatutako gai kimikoa da, egurra babesteko erabili ohi da. Europako Batasunak dio oso toxikoa dela uretan bizi diren izakientzat eta arrisku larri eta kronikoa dakarrela ingurumenarentzat». Fumigatzea «neurri selektiboa ez denez, ez ditu ekosistemak bereiziko, eta fumigatutako esparruetako akuifero eta errekek kutsatuko ditu, bertan bizi diren izaki guztiak kaltetuz, izan pertsona, animali edo zuhaitz osasuntsu edo gaixo».

Gipuzkoako Foru Aldundiko Basogintza zuzendaritzara jo du ATARIA-k

fumigatzearen inguruan galdetzeko, eta fumigatzea «aukeretako bat» dela esan du, oraindik ez dutela behin betiko erabakirik hartu. Euskal Herriarekin batera Zeelanda Berrian eta Txilen daude pinudi gehien, eta herrialde horietan gaixotasunari aurre egiteko fumigatu izan dela esan dute, horregatik hartu dutela kontuan, baina oraindik ez dela ziurra pinudiak fumigatuko dituzten. Zentzu horretan Neiker-Tecnalia Nekazaritza, Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea ere ari da lanean. Alemaniako Jena Unibertsitatearekin batera arriskuen mapa bat ari dira osatzen, eta horretarako Zeelanda Berriko eta Kanadako adituekin jarri dira harremanetan.

Zergatiak

Pinuen gaixotasunarekin harremana dutenak ez dira ados jartzen xingola marroiaren eta xingola gorriaren zabalkundearen arrazoiak zerrendatzeko garaian. Uda honetako hezetasun handiak eta beroak izurritea areagotu dutela esan izan da, baina





Naturkonek, esaterako, monokultiboa ere aipatu nahi izan du. Lurra kaltetzen joan garela esan du. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako baso politika pinuaren monokultibora zuzendu da gehienbat kolektiboaren hitzetan, diru laguntzetan oinarrituz, eta ondorioz, pinuak gailendu dira gure inguruan, gaixotasunaren zabalbundeari lagunduz. Pinuak landatzean etekin ekonomiko azkarra izan dute askok, baina aro hori bukatu da. Soroetako adibidea ez dela jarraitu ere esan du, hau da, lurrrari ez zaio atseden hartzen utzi, eta leku askotan pinuen hirugarren landaketa ere egin dute, lurra kaltetuz. 100 urte dira pinua zabaltu zela gure inguruetan, eta nahiz eta landaketek lurra makaltzen duten, ez da eten. Makalaldi horrek ere lagundu du onddoen zabalpenean.

Fraisoro eskolako Baso Kudeaketa eta Natura Ingurunea zikloaren irakasle eta sailburu den Maixa Otegi ere iritzi berekoa da. «Monokultiboa beti da txarra, baita hemengo espezie bat jartzen bada ere. Espezie ba-

kar bat jarritz gero gaixotasun bat sartzen bada erraz zabaltuko da. Industriadako ona izan daiteke, baina basogintza egoki batek nahasketa behar du».

Aukera

Baso politika eza ere salatu da azken hilabeteetan, «basogintzan inertiak indar handia du, baina gaur egungo erronkei aurre egin nahi badiegu, garai berrietara egokitzeko ahalegina egin behar dugu. Basozainok ere, nola ez, badugu zer ikasi eta ohitura zahar batzuk aldatu beharko ditugu. Ez da gure zeregina, ezta pentsatu ere, baso politika erabakitzea, baina egunero ikusten ari garenaren aurrean ezin dugu isilik jarraitu, eta basoan ardura duten erakundeei, Aldundiei bereziki, eta beste eragileei (baso jabeen elkarteak, egurzaleak, sindikatuak...) bizi dugun egoera honen inguruan hausnarketa serioa, eta egungo baso politikak jarraitu beharreko ildo nagusiak zehazteko eskatzen diegu», esan du, esaterako, Gipuzkoako Basozainak elkarteak.

«Monokultiboa beti da txarra, baita hemengo espezie bat jartzen bada ere. Espezie bakar bat jarritz gero gaixotasun bat sartzen bada erraz zabaltuko da»

Mahai gaineen jarri diren aukeren artean dago eukalipto landatzearena ere, eta egurzaleak horren alde azaldu dira. Baina emango lukeen errentagarritasun ekonomikoaz harago, osasun arazoak ere ekarri ditzakeela ohartarazi dute basozainek: «Inork ez du ohartarazten eukaliptoei dituzten gaitzez, hala nola *Mycosphaerella*, ezta kanpoko koniferoak gehiegi landatzeak ekar ditzakeen arazoez ere (birsorkuntza gaitasuna, gehiegizko itzala, beste espeziekin lehia, ongarrien erabilera, gaitzak...). Horretaz gain, ez dago batere garbi zein izango den etorkizunean zuhaitz egurraren balioa, bai

ak errentagarritasunarekin lotuta etorri direla. Eta errentagarritasun ekonomiko horrekin lotuta beti daudela bi alde; Euskadiko baso elkarteek bilgune den Basoa elkartearen esaterako, errentagarritasuna lortzea eta basogintza egitea elkarlotuta daudela uste dute. «Basoa eta produktua hartu behar dira kontuan, produktua dudana bitartean, baso berrira daukat, eta horrek aldaketa klimatikoa eragiten duen CO2 isuria murrizten laguntzen du, baso berritzen lagundu, basoak garbi mantentzen laguntzen du...», esan du Gipuzkoako Fernando Otazua zuzendaria.

tzentajetan atera zitezkeen eskualdeko eraikin publikoetan erabiltzeko», esan du. Biomasa horretarako apea (7 eta 20 diametro arteko egurra) hartu zuten kontuan, hortik ezpala ateratzeko, enborren puntezi ari gara, alegia. «Ikusi zen eskualdean urtean 4.000 metro kubiko tona atera daitezkeela, bai hostozabaletatik eta baita koniferetatik ere, nagusiki pinuetatik. Hortik atera genuen, azterketa egin genuen urte hartan 2.500 tona atera zitezkeela ezpala moduko erabilpena emateko. Horrekin batera eskualdeko biomasa erabiltzeko azpiegiturak ziztuzten udalen zenbatekoa ere hartu genuen, eta



Basoen kolorea islatzen duen koloreen gama

zerrarako erabiliko denarena, bai pargintzara bideratuko denarena». Eukaliptoaren inguruan informazio asko zabaltzen da eta errentagarritasuna jarri da guztiaren gainetik. Dituen ezaugarrien artean hori nabarmentzen da beti, pinua bezala azkar hazten dela eta errentagarria dela, baina suteak zabaltzerakoan oso kaltegarria ere izan daiteke, eta hori barrarik landatuz gero, pinuek bizi duten egoera berriz ere errepikatzearen arriskua hor dago.

Eukalipto ere gaixo dago, beraz, eta ez da espezie bakarra gaztainondoak ere gaixo daude, Europako lizarrak ere gaixo daude eta hona iritsi daiteke... Haritzak bezalako hementxo espeziak landatzeko diru laguntza lerroa ere zabaltzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina Fraisoroko Maixa Otegi ez da espezie bakar bat bultzatzearen aldekoa: «Gereziondoa, pagoa, gaztainondoa... baditugu espezie gehiago ere».

Zer landatu behar da, beraz? Edo basoa bere horretan utzi behar al da? Iritzi bat baino gehiago daude, baina egia da, orain arte jarraitu diren ildo-

Ekonomia zirkularra aipatu izan da zentzu horretan, eta Tolosaldeak badu horretan eragiteko baliabide nahikorik, eta hor kokatu behar da biomasa. Azken urteetan biomasa hitza energia-iturri alternatibo bat adierazteko erabiltzen da, erregai modura, eta Tolosaldea Garatzenek badu daturik. Tolosaldea Garatzenen Energia Planaren barruan, iaz egin zuten eskualdeko biomasaren potentziala neurtzeko azterketa. Xabier Esteban Alonso Tolosaldeko energia teknikariak azaldu du zertaz ari garen: «Esku pribatuetan zein publikoetan dago biomasa hori. Egurra badago eta hainbat gauzetarako erabiltzen da, eta guk jakin nahi izan duguna da biomasa horrek, erregai moduan, alegia, zein potentzial duen eskualdean. Horretarako Hazi-ri eskatu genion lana, Tolomendiren eskutik».


2.500 tona vs. 40

«Tolosaldean biomasa, hau da, egurra badago. Balio askoko baliabidea da eta guk ikusi nahi genuena da biomasa hori, ezpalak nagusiki, zer por-

ikusi genuen Tolosaldean urtean kontsumitzen dena 40 tona besterik ez direla».

Eskaera eta eskaintza neurtu zituzten, eta erabilpenak ekarriko litzuten mesedeez ere aritu da Esteban: «Baliabide energetikoen azterketa horretan argi geratu zen energia kontsumitzaile handiak –kiroldegiek, osasun etxeek, hirugarren adinekoen egoitzak...– ez daudela biomasa erabiltzeko egokitu. Baina aukera izan daiteke; menpekotasun energetiko handia dugu eta buelta emateko balio dezake. Euskadik %94ko menpekotasun energetikoa du, eta kopuru hori jaisten balio dezake. Bide batez, enplegua sortu dezakezu, basoak kudeatzen eta garbitzen lagundu...». «Badago baliabidea eraikin publikoetan kontsumitzen dena bider hamar egongo balu ere, baliabide nahikoa egongo litzateke».

Ezin une egokiagoa da gogoeta sakon bat egin eta aurrera begirako baso politikari buruzko eztabaida egiteko, eta batzuen eta besteen iritziak ikusita, horretan behintzat, bat egiten dutela ikusi daiteke.



«FUMIGATUKO BADA, BEHARREZKOAK DIREN INGURUMEN BALDINTZA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA IZANGO DA»

19

Gipuzkoan Mendietako Foru Arauan oinarritutako basogintza politika da nagusi. Foru Aldundiak argitu duenez «Gipuzkoako mendiak modu iraunkorrean kudeatzea» da bultzatzen dutena.

«Erabilerak antolatzea, mendiaren ustiapen iraunkorra bultzatzea eta ingurumenari dagozkion alderdiak ekonomia, gizarte eta kultura alorreko jarduerekin batzea» dira Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dituen basogintza politikaren gakoak. Horretarako baso jabeek Gipuzkoako Mendien Foru Arauan zehaztutako eginbeharrak bete ditzaten laguntza ematen dietela ere esan du Foru Aldundiak, beti ere, «interes orokor eta partikularrak modu orekatuan uztertuz». «Mendi publiko nahiz pribatu ustiapena eta erabilera natura ondasun direla aintzat hartuz, iraunkortasun eta gehieneko erabilera printzipioen arabera, mendien arazoizko erabilera natura ingurunea behar bezala zaintzearekin eta basoen egonkortasunik handiena lortzearekin bateragarri eginez. Era horretan mantendu ahal izateko mendien biodibertsitatea, produktibitatea,

birsortzeko gaitasuna, bizitasuna eta gaur egun zein etorkizunean Gipuzkoako toki, eskualde zein lurralde mailako funtsezko zeregin ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak betetzeko duten ahalmena, beste ekosistema batzuei kalterik eragin gabe», gehitu du.

Bide horretan, diru laguntzak ematen ditu, -2018koak itxita daude jada-, apirilaren 16an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2019an irekiko dituzte berriz, eta Aldizkari Ofizialean emango dute horien berri. Diru laguntzak bertakoa den edozein zuhaitz espezie landatzeko ematen dituzte. Laguntzaren zenbatekoa aukeratutako espeziearen hazkunde mailaren arabera ematen dute; hazkunde ertaineko espezieek %65eko laguntza dute eta hazkunde motelakoek %80koa.

Pinuen gaixotasunek ezinegon eragin dute pinu jabe askorengan,

eta bide horretan, jabeek zer aholkatzen dieten galdetuta, ez dutela espezie jakin bat landatzeko aholkatzen esan du Foru Aldundiak. «Baso jabeek erabaki behar dute beraien nahien arabera eta beraien lur sailen ezaugarrien arabera zein den erabili nahi duten espeziea. Irizpide garbirik ez duen jabeak aholkularitza teknikoa eska diezaieke adituak diren teknikariei».

Kobre oxidoa fumigatzeko aukeraren aurrean Foru Aldundiaren iritzia inguruan ere galdegin dio ATARIA-k: «Foru Aldundiak bat egin du Eusko Jaurlaritzarekin eta beste lurralde batzuetan eraginkorra izan den aire tratamendua Gipuzkoan ere egiteko baimena eskatu dio Espainiako Gobernuari, honek eman behar baitu oniritzia. Noski, egingo bada beharrezkoak diren ingurumen baldintzak kontuan hartuta izango da».



Iraila bukaeran ireki zuten 'Txotxongilo animatuak' erakusketa, Zinemaldiarekin batera. REBEKA CALVO

ANIMAZIOA

FOTOGRAMAZ

FOTOGRAMA

LORTZEAN

Topic zentroak aldizkako erakusketa berria du: 'Txotxongilo animatuak'. Animazioa sortzeko 'Stop-motion' teknika du oinarri. Presarik gabeko teknika da, pertsonaien mugimendu guztiei banan bana argazkiak atereaz lortzen dena. Erakusketa otsailaren 28a bitarte egongo da zabalik.



Rebeka Calvo

Tolosako txotxongiloen etxeak urrian ireki ohi ditu aldizkako erakusketak, baina hogeita batgarrena pixka bat lehenago zabaldu zuten. «Zinemaldiarekin batera egin genuen, *Txotxongilo animatuak* erakusketak zinemarekin lotura estua duelako», esan du Maria San Sebastian Topic museoaren eta dokumentazio zentroaren arduradunak. Topic-ek txotxongiloen munduan murgiltzeko aukera ematen du, baina ez bakarrik, eta horregatik antolatutako erakusketa hori: «Txotxongilolaritzatik gertu dauden beste arte mota batzuen inguruan ere egiten dugu lan eta erakusketetan ere egin nahi diegu tokia. Zabaldu nahi duguna da txotxongilolaritza ez dela isolaturik dagoen zerbait, harreman handia duela beste diziplina batzuekin. Iaz *Art Toys* erakusketa izan genuen –jostailu eta artelan diren objektuekin osatutakoa– arte garaikidearen eta txotxongiloen arteko harreman horri buruz, eta aurtengo zinema eta *Stop-motion* teknika landu nahi izan ditugu».

Bildumak *Stop-motion* teknika erakusten du eta animazioa zein txotxongiloak batzen ditu, nolabait. «*Stop-motion*

tion animazio teknika zinemarekin batera jaio zen, XIX. mende bukaeran. Garai horretan zineman animazioa lortzeko, txotxongiloak erabiltzen ziren. Harreman handia dago beraz, txotxongiloen, animazioaren eta zinemaren artean».

Txotxongiloek bizia emateko hainbat teknika daudela gogoratu du San Sebastianek; hariak, eskuak, makilak... baina bada besterik ere, eta hori da, hain justu, Topic-en erakutsi nahi dutena. «Panpin animatu hauekin ere eman ahal zaie bizia. Normalean plastilina edo gailu artikulatuak erabiltzen dira *Stop-motion*eko panpinak egiteko, eta mugimendua lortzeko panpinaren mugimendu guztiei argazkiak

«Normalean plastilina edo gailu artikulatuak erabiltzen dira 'Stop-motion'eko panpinak egiteko»

«Milaka argazki ateratzen dira eta bideoak editatzeko programa batekin jarraian jartzen dira»

MARIA SAN SEBASTIAN
TOPIC MUSEOAREN ARDURADUNA

ateratzen zaizkie. Milaka argazki ateratzen dira, eta guztiak edukitzean bideoak editatzeko programa bat erabiltzen da argazki guztiak jarraian jarri eta mugimendu hori lortzeko».

Oso lan neketsua da, lan handia eskatzen baitu, eta xehetasun guztiak hartu behar dira kontuan, *Stop-motion*eko egileek horregatik dute euren burua, artistatzat. «Filmak egin izan dira, baina, batez ere, film laburrak egiteko edo publizitatean erabiltzen da. Marrazki bizidunak ere egiten dira, baina denbora asko behar da,

diru asko inbertitu behar da... ez da erraza», esan du Topic-eko kideak.

Espainia mailan punta-puntakoak diren bi artistak egin dituzte komisario lanak, Lourdes Villagómez eta Coke Riobóok. Erakusketan euren lanak ikusi daitezke, baina baita Espainian animatzaile garaikide independenteen lan ugari ere, besteak beste, Isabel Herguera, Irene Iborra, Cristina Vilches, Sam Ortí, Virginia Curiá edo Marc Riba. «Komisarioek Los Animantes animazio konpainia dute eta beraiek izan dira beste artistekin hitz egin eta biltze lan hori egin dutenak. *Stop-motion* teknika ez da oso ezaguna, eta guk ez genuke jakingo zein lan eta zein artistarekin hitz egin, Lourdes eta Cokeren lana ikaragarria izan da zentzu horretan».

Zein artistarengana jotzea zaila bada, are zailagoa da piezak eskuratzea, oso hauskorak baitira. «Plastilina edo buztinarekin eginak daude asko, eta horiek mantentzea oso zaila da. Lanetako batzuk duela hamar urte egindako filmetakoak dira eta egileek altxorrak balira bezala gordetzen dituzte. Horiek mugitzea eta hemen sei hilabetez edukitzera animatzea zaila da».

Animaziozko lanak aipatzerakoan haur eta gazteei zuzendutako lanak etorri ohi zaizkigu burura, baina San Sebastianek dio *Stop-motion*eko lanak ohikoagoak direla helduei zuzendutako lanetan. «Badaude haurrei zuzendutako lanak, baina helduenak dira gehiago. Tim Bartonen *La novia cada-vero* oso ezaguna da, esaterako. Haurrei begira askok ezagutzen dute *Shaun ardia* marrazkia. Mundu horretan ez gaudenok ez ditugu asko ezagutzen, baina lan asko daude eta, batez ere, Espainiatik kanpo egindakoak dira eza-gunak».



Animazio lanak egiteko erabiltzen dituzten molde batzuk ere ikusi daitezke. R. C.



2007an Goya saria eskuratu zuen 'El viaje de Said'—ek ere badu bere lekua. R. C.

*Stop-motion*en barruan adar asko daude eta lagin bat eraman nahi izan dute Topic-era. «Plastilinarekin egindako panpinak dira, behar bada, eza-gunenak, baina itzalekin ere egiten da eta hemen ere ikusi daiteke adibiderik. Itzalekin egindako lanetan txotxongiloa mugitu beharrean itzalak mugitzen joaten dira, mugimendu bakoitzean ateratzen dute argazkia eta denak bata bestearen atzean jartzean sortzen da mugimenduaren ilusioa».

Los Animantes taldeko Lourdes Villagomez eta Coke Rioboo Topic-eko aspaldiko lagunak direla esan du museoko arduradunak. «2016ko Titirijai jaialdian Cokek helduei zuzendutako animazio mota honi buruzko tailerra eskaini zuen, baina aurretik Aste Santu batzuetan ere egon zen eta orduan haurrei eskaini zien tailerra. Oso ondo moldatu ziren eta oso interesgarria izan zen».

Ez da antzinako zerbait

Erakusketa iraila bukaeran zabaldu zuten eta jada jende ugari bisitatu duela esan du San Sebastianek. «Jendea, batez ere, teknika berarekin harrituta da. Panpinak eta hainbat irudi ere badaude, eta horiek ere gustuko dituzte, baina teknika bera ezagutzean harritzen dira, batik bat. Orokorrean iruditzen zaigu antzinako zerbait dela eta gaur egun, jada ez dela horrelako teknikarik erabiltzen, modernoagoa den zerbait egiten dela. Eta egia da animazio gehiena ordenagailuen bidez eta egiten dela, baina oraindik bada eskuz egindako marrazkiekin egiten den animazioa eta noski, baita *Stop motion*ekin egindakoa da».

Jarraitzaile asko dituen teknika dela dio San Sebastianek, baina ez dela publiko zabalera iristen ere esan du,

eta horrelakoetan nahiko ohikoa den bezala *Stop-motion* teknikarekin lan egiten dutenen pasioa nabarmendu du: «Pasioz egiten du lan eta artista-tzat dute euren burua».

Lan asko eta zehatza eskatzen duen animazio teknika da eta askotan ez du arrakasta handirik izaten, salbuespenak badaude, hala ere. Erakusketako Coke Riobóo komisarioaren *El viaje de Said* film laburrak Animazio Goya saria eskuratu zuen 2007an, eta Topic-en pertsonaia ba-

«Espainia mailan teknika honi eskaintzen zaion lehen erakusketa da 'Txotxongilo animatuak'»

«Hainbat animazio eta txotxongilo jaialditatik deitu digute eurek ere jarri nahi dutela esanaz»

MARIA SAN SEBASTIAN
TOPIC MUSEOAREN ARDURADUNA

tzuk ikusi daitezke. Orain egiten ari den *Mad in Xpain* laneko zenbait pertsonaia, atrezzo eta dekorazio ere ikusi daitezke Tolosan.

Espainia mailan *Stop-motion* teknikari eskaintzen zaion lehen erakusketa da eta bidea ireki duela dirudi: «Hainbat animazio eta txotxongilo jaialditatik deitu digute eurek ere jarri nahi dutela esanaz».

Hainbat film labur, pelikula eta bestelako lanetako pertsonaia eta dekoratuez gain, pantaila handian film batzuetako zatiak ikusi ahal dira Topic-en, eta hiru pantaila txikitan lan nola egiten duten ere ikusi daiteke. Moldeak ere ikusi daitezke prozesua nolakoa den irudikatu ahal izateko.



Lan mota asko daude 'Stop-motion' teknikaren barruan, baita itzalena ere. R.C.



Film laburretan eta publizitatean erabiltzen da, batez ere, animazio teknika hori. R.C.


'TXOTXONGILO ANIMATUAK'

Artistak. Isabel Herguera, Fernando Cortizo, Eduard Puertas, Irene Iborra, Anna Dolanas, Marc Riba, César Díaz, Sam Ortí, Virginia Curiá, Tomás Conde, Lula Gómez, Cristina Viches, Valle Comba, Asis Merino eta Coke Riobóo.

Noiz arte. 2019ko otsailaren 28a arte.

Ordutegia. Udazken eta neguan astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, astelehenetan izan ezik, itxi egiten baitute. Eta larunbata, igande eta jai egunetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Gabonetako ordutegia. Abenduaren 21etik urtarrilak 6ra 10:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 19:00etara.



Zumaiaiko flyschean surflariak grabatutako bideotik ateratako irudia.

Ekonomia borobila

24

Azaroaren 17tik 25era European Hondakinen Prebentziorako Astea ospatzen da, eta oraindik hondakinen kudeaketa berdina egiten dugu

Gure etxeetara iristen den erosketaren zati handi bat oraindik plastikoz beteta dagoen bitartean, Zumaiaiko surflariak flyschean ateratako irudiak izugarriak iruditzen zaizkigu; ez dakigu nondik iritsi diren horraino. Nondik? Gure ibaietatik, gure herrietatik, gure etxeetatik, noski.

Azaroaren 17tik 25era European Hondakinen Prebentziorako Astea ospatzen da, eta oraindik hondakinen kudeaketa berdina egiten dugu. Plastikozko poltsak kobratzen dizkigute, behintzat.

Gure etxeetako zaborra modu egokian banatzen ikasi dugu eta gutxitu-berrerabili-birziklatu araubidea ere barneratu omen dugu. Baina funtsean, oinarrian, ekonomia lineal bat dagoen bitartean, hau da, gure kontsumo eta ekonomia eredu, lehengaia produktu bihurtu, erabili eta bertako materialak botatzean datzan bitartean, gero eta gehiago okupatu eta arduratzen gaituen zaborra oso ondo ba-

natzen ikasiko dugu, besterik ez. Baina bitartean baliabideak gutxituz doaz.

Hondakinak balore bihurtzera

Haratago joan behar gara. Ekonomia lineala borobil bihurtzera. Gure hondakinak balore bihurtzera. Gure energia beharrak gutxitu eta behar duguna bertan sortzera. Gure baliabideak optimizatu eta hondakinen murrizketa suposatzen duen ekonomiarantz pausoak ematera.

Tolosaldeko Plan Estrategikoaren ardatz estrategikoetako bat da ekonomia zirkularrerantz pausoak ematea. Udalak, enpresak, herritarrak inplikatu. Neurri txikienetik hasita (puskatzten den zapata konpontzea edo bertako produktuak kontsumitzea) estrategia orokorreraino (hondakinen kudeaketa eraginkorra, energia berriztagarrien ekoizpena handitzea) helburu berdinekin: gure herritarren bizi kalitatea hobetzea, bertako ingurumena kaltetu gabe.

Eta buelta. Gure ingurumena hobetzea, gure herritarren bizi kalitatea kaltetu gabe. Ekonomia borobilak ekarriko baitu ongizate borobila. Eman diezaiozun gurpilari!

«Neurri txikienetik hasita estrategia orokorreraino helburu berdinekin: gure herritarren bizi kalitatea hobetzea, bertako ingurumena kaltetu gabe»



Kuiatxo 'quichea'

Kuiatxo edo kalabazin *quichea* egingo dugu. *Quichea*, tartalera bat dela esango dugu, Frantziatik datorren pastel gazi bat.

Brisa masa beharko dugu horretarako. Egin daiteke, baina guk dendan erosiko dugu, eta horrela askoz ere errazagoa da. Labean erabiltzeko molde bat beharko dugu, eta kasu honetarako moldea ez da oso altua izaten, ez baita hazten bizkotxoak-eta bezala.

Kuiatxo handi bat edo bi-hiru txiki beharko ditugu. Kuiatxo handiak erdian haziak izaten ditu, eta nik nahia-go izaten dut txikiak erabiltzea.

Lehenengo zartaginean oliba olio jarriko dugu berotzen, eta tipula xehexe eginda botako dugu bertara. Behin tipula pixka bat erregosi denean, kuiatxoa botako dugu. Kuiatxoa, nik azal eta guzti jartzen dut dadotxoetan moztuta. Niri dezente egitea gustatzen zait, baina hori gustuen arabera egin daiteke.

Labea berotzen jarriko dugu 180 gradutan, eta masa prestatu behar dugu. Masa bilduta etortzen da, eta moldearen gainean zabaldu egin beharko dugu, eta iskinetara igoko zaigu pixka bat. Sardexka edo tenedore batekin, moldea zulatu egingo dugu ez igotzeko edo arrotzeko. Horren gainean, zuzenean, laberako paper bat jarriko dugu, eta paperaren gainean pisua duen zerbait jarri behar dugu eta nik garbantzuak erabiltzen ditut.

Garbantzu batzuk aparteko pototo batean ditut, eta beti berdinak erabiltzen ditut. Garbantzuek masa igotzea galaraziko dute. Eta 10-15 minutu edukiko dugu labean.

Masa egiten den bitartean ontzi batean lau arrautzak irabiatuko ditugu, eta esnegaina gehituko diogu. Dena ondo



AINTZANE ARTOLA

nahastuko dugu, eta gatza botako diogu. Honi, zartaginean egin ditugun tipula eta kuiatxoa gehituko dizkiogu dena nahastuz.

Guztia moldeko masaren gainera botako dugu, eta flan baten moduan geratuko zaigu. Berriz labean sartuko dugu.

Bere horretan sartu dezakegu labarra, edo posible dugu gazta botatzea gainean. Ni oso gazta zalea naiz eta labean egiten ditudan gaztarekin jartzen ditut. Eta zein gazta botako diogun gaur? Ba, iparraldean bada *Le Petit Basque* deitzen den gazta bat.

Oso-oso krematsua da, eta oso egokia da kasu honetarako. Tolosako denda batzuetan badakit saltzen dutela.

Behin labean sartuta, denborari baino gehiago begiratzen diot masari. Masa horrek arrautza duenez, mamitu egin behar du, eta begiratzen

joan beharko dugu 5-10 minututan eginda dagoen, eta listo, orduan atera.

Pastel hau atera berritan jan daiteke, oso goxoa, eta nik horrela nahiago dut. Baina hurrengo egunerako utzi daiteke, eta hotza ere jan daiteke, edo berotu aldi txiki bat eman dakioko.

Ikusi dugu zein erraza den, guk kuiatxoarekin egin dugu baina edozein barazki, haragi edo arrain nahastuta egin daiteke: porrua eta ganbak, espinakak, oilaskoa,...

Quiche famatuena, hau da, berezkoak arrautza eta esnegaina bakarrik du, baina orain asko ikusten da hiru-giharrarekin ere.

OSAGAIAK

- Brisa masa.
- Kuia bat edo bi txiki
- Tipula erdi bat
- Lau arrautza
- Sukaldatzeko 200 ml esnegain
- Gazta
- Oliba olio
- Gatza



AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 02

BERASTEGI

KULTUASTE

16:30. *Hiriko Jolasak* parkea Kulkiren eskutik, eskola atarian. Tartean, txokolate jatea.

19:00. *Madagaskar*, eskalada aitzaki ikus-entzunezkoa Andoni Arregi eta Imanol Amundarainen eskutik, erabilera anitzeko gelan.

GAZTELU

KULTURASTE BURUA

20:00. Ziribulio Sound System.

21:00. Pintxo dastaketa. 15 pintxo aurkeztu beharko dira.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

22:00. Beñat Igerabide, *Geldialdi Bakoitzean* diskoa aurkezten izango da taldearekin.

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

Beldurrezko film proiektzioak:

16:30–18:30. 12–14 urtekoentzako filma.

19:00–21:00. 15–17 urtekoentzako filma.

50. TOLOSAKO

ABESBATZA LEHIAKETA

19:00. Hirugarren lehiaketa saioa: Schola Cantorum (Norvegia), St. Jacobs Vokalensemble (Suedia), Mikrokosmos (Frantzia), The Salt Lake Vocal Artists (AEB) eta Kame Koris (Letonia), Leidorren.

MUSIKA

22:00. Lanbroaren kontzertua izango da, Box.A elkartearen. Sarrera, doan.

LARUNBATA AZAROAK 03

AMASA

SAN MARTIN FESTAK

20:30. Mondeju afaria, Uxo–Toki elkartearen.

BERASTEGI

KULTURASTE

16:00. Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Duintasuna elkarteko bikideren eskutik, azken hilabeteetan



BEDAIO, BERASTEGI ETA GAZTELU, AZOKEN PLAZA

Igandea azoka eguna izango da eskualdeko hiru tokitan. Azoka aitzakia hartuta egun osoko egitarauak dituzte. Bedaion 10:00etan emango diote hasiera egunari, Gaztelun 10:30ean Aire Ahizpen kontzertuarekin girotuko dira eta Berastegin 11:00etan azokaren irekierarekin egun osoko festa izan go dute. JOSU ARTUTXA

izandako ibilbidearen inguruko hitzaldia, Gaztainondo elkartean.

18:00. Aroa eta Mirariak magia ikuskizuna Asier Kidam magoaren eskutik, erabilera anitzeko gelan.

22:00. *Putinen Despedidakoa* antzezlanaren Ramon Agirre, Inazio Tolosa eta Asier Sotaren eskutik.

GAZTELU

KULTURASTE BURUA

15:30. Bizikleta zaintzen ikasteko tailerra.

17:00. Txokolate jatea.

17:30. Gaztelu eta bere baserriak, hitzaldia.

19:00. Gamusinoen bila.

21:00. Kantu afaria.

OREXA

KULTURASTE

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Puro Relajo taldea, mexikar musika, eta askoz gehiago. DJ Txoko.

TOLOSA

DANTZA

18:00. Dantza latindarren topaketa, hilabetero egiten duten moduan, kultur etxean. Sarrera doan.

50. TOLOSAKO

ABESBATZA LEHIAKETA

11:00. Laugarren lehiaketa saioa:

Convivium Singers (Erresuma Batua), El Leon de Oro (Asturias) eta Kammerchor Saarbrücken (Alemania).

19:00. African Sanctus kontzertu berezia, Enrike Azurza zuzendaritzapean: Hodeiertz abesbatza (Tolosa), Oroith abesbatza (Ordizia) eta Loinaz abesbatza (Beasain).

MUSIKA

18:00. Orkestrina Band Jazpana, dantzaldia antolatu dute, Alondregia tabernan. Gonbidatu bereziak egongo dira, Armando Figueroa, abeslari eta perkusio jotzailea, eta Rafa Porras, saxofoi jotzailea.

IGANDEA AZAROAK 04

BEDAIO

AZOKA BEREZIA

10:00–13:45. Era guztietako postuak egongo dira, eta Jakoba Errekondo egongo da bere azken liburuarekin.



ADINEKO EMAKUMEEN TESTIGANTZAK, ANOETAN

Anoetako Udalak, azken urteotan herriko adineko emakumeen testigantzak jaso ditu, beraien bizipenak bistaratu nahian eta herriaren historian izan duten garrantzia aitortzeko asmoz. Grabaketan laburpen bideoa eta osatu duten argazki bilduma digitala aurkeztuko dute, astelehenean, 19:00etan, Mikelasagasti auditorioan. ATARIA

Ondoren. Bazkaria. Egunean bertan txartelak salgai egongo dira. 20 euroren truke bertako babarrunak dastatzeko aukera izango da.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

11:00. Goizean zehar azoka eta tartean herriko eta herritarren produktuak eskuragai. Hainbat lehiaketa egongo dira: Gazta lehiaketa, postu lehiaketa, arroz-esne lehiaketa, ahari, ardi eta bildots lehiaketa, animalia ezberdinen erakusketa eta XXI. rally-ko argazki onenen erakusketa udaletxean.

13:30. Sari banaketak.

18:00. Talo jatea eta gazta eta arroz-esne dastaketa, ardoak eta sagardoak lagunduta. Tartean, Sara Caminos eta Maider Agirre trikitilarien emanaldia.

GAZTELU

KULTUR ASTEBURUA

10:30. Aire Ahizpak, kontzertua elizan.

11:00. Azokaren irekiera.

11:30. Herriko dantzariak.

12:00. Belar meta antzinako erara.

13:30. Erretirodunen bazkaria.

TOLOSA

50. TOLOSAKO

ABESBATZA LEHIAKETA

11:00. 50. urteurreneko sari nagusia. Lehiaketa saioetan puntuazio altuenak eskuratu dituzten abesbatzen errepertorio berri bat abestu beharko dute, epaimahaiak erabakia hartzeko.

19:00. Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren aurkezpen kontzertua, San Frantzisko elizan.

ASTELEHENA AZAROAK 05

AMASA-VILLABONA

MANIFESTAZIOA

12:00. Villabonako erretirodunek eta pentsiodunek manifestazioa egingo dute udaletxe aurretik abiatuta.

ANOETA

DOKUMENTALA

18:30. Adineko emakume anoetarren testigantzen aurkezpena: grabaketak eta argazkiak. Ondarearen Europako

ZINEMA

LOS INCREIBLES 2

Larunbata (17:00). Haur zinema.

Igandea (17:00). Hiru dimentsiotan.

Gurea, Amasa-Villabona.



EL ÁRBOL DE LA SANGRE


Larunbata (19:30 eta 22:00).

Igandea (19:30).

Astelehena (21:00)

Ikuslearen eguna.

Gurea, Amasa-Villabona.



VIAJE AL CUARTO DE UNA MADRE

Larunbata (19:30 eta 22:00).

Astelehena (20:30).

Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.



Jardunaldien barruko hitzaldia izango da, Mikelasagasti auditoriumean.

AMEZKETA

KULTUR HAMABOSTALDIA

19:30. Katihotsak produkzioaren *Ataun of the dead* eta *Joxean's hileben* euskarazko pelikulen emanaldia eta sortzaileekin solasaldia, kultur etxeko aretoan.

TOLOSA

ITSASPEKO BIHOTZAK

17:00-19:00. Haurrei zuzendutako literatur aretoa, irakurzaletasuna sustatu eta berdintasuna lantzen dituen.

Norberak
jakingo du



AITOR MENDILUZE

Berriro bete dira
hizketak lehengoez
gogoak doluz eta
hilerriak lorez
urtean behingo zita
galezina gordez
norberak jakingo du
izanaren orde
ohitura goxagarri
al zaion edo ez



Doinua

Lagundurikan danoi

Maitasun gehiago, mesedez

Iritsi al gara? Litekeena da. Ezin da ukatu denbora luzez borrokatu duguna, baina hemen ditugu gure gazteak, bakean amesten dutela.

Beldurrik gabe ari dira oihuka, esker oneko, zai-netan odol-nahasketa izateaz harro. Kostakoak barnekaldekoekin; txinatarrak japoniarrekin; euskaldunak espainiarrekin, edo afrikarrekin, edo arabiarrekin, kataluniarrekin...

Maitasun ezinezko beldanikoak, zeintzuk gure arbasoek ondo asko babestu eta loratu zituzten.

Eta gaur hemen gaude, askatasun bila, munduari nola esan asmatu ezinik - serio demonio edo ardo artean iji eta aja-, mugak ezetz, zubiak direla eraiki behar direnak.

Maitasun gehiago, mesedez.

Ez du azalpen handirik behar. Aitor dezadan, ez dira nireak hitzok.

Lima hiriburuko jatetxe batean topatu nuen idazkia mahai erdian pausaturik, gaztelania dotorean, eta sinadurak jatetxearen izen bera zekarren. Jatorrizko testuak *andinoak* eta *limeñoak* aipatzen zituen euskaldunen orde, baina begi kliska batean ohar-tu nintzen mezua unibertsala zela. Gure gazteak ere hango gazteak

dira; eurak ere beldur eta amets berak dituzte.

Lurralde hark utzitako azken oparia izan zen. Ba hori, ez dakit iritsi garen, baina ez zaigu gaizki etorriko maitasun gehiago.



**OLATZ
PEÑAGARIKANO**
AEK-KOIRAKASLEA

**Begi kliska batean
ohartu nintzen mezua
unibertsala zela.
Gure gazteak ere
hango gazteak dira;
eurak ere beldur eta
amets berak dituzte**

KOMIKIA JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE



Hitz egin beharra daukagu

Kaixo. Nik asko hitz egiten dut, eta askotan gauza gutxi esan. Baina aizue, lortu dut hitz egitetik bizimodua ateratzea. Hori bai, hitz egin asko eta idatzi ia batere egiten ez nuenez, boligrafoa zein eskurekin hartu ahaztu baino lehen, ATARIA-ri eskatu nion tartetxo bat egingo ote zidan. Eta begira, orri hau utzi didate. Beraz, hasi aurretik, eskerriak asko ATARIA-ri, eta irakurtzen segitzeko asmoa badaukazu, animo zuri.



**JULEN TELLERIA
LOPETEGI**
HIZTUNA

Idea ona iruditu zitzaidan berriz idazten hastearena. Word dokumentu bat zabaldu eta aurpegira zuri-zuri begiratu didan arte. Nola bete hutsik dagoen orri bat. Nola esan, hitz egin gabe. Izan ere, hor kanpoan topatuko bagina, gustura esango nizkizuke gauza pare bat hartaz eta hontaz, zurito baten bueltan: zeinen nekeza den euskaldun izatea, edo, are gehiago, euskaldun unibertsal izatea; galdetu bestela Berri Txarrak taldeari. Hain txarra al da ba MTV, eta hain onak MTV ez garenak? Musikaren komertzioa. Edo

kontatuko nizuke gaurko albistea dela (beste) emakume baten erailketa, enegarrena aurtan, oraindik ere bakarren batek hilerokoari buruz txisteak egin eta ingurukoek barre egiten dutenean. Umorerik ez da galdu behar, sekula ez, baina bada garaia gai hau serio hartzeko.

Pozik ariko nintzateke zurekin euskarari buruz ere; esango nizuke oraindik izenik eman ez baduzu, apuntatzeko oraintxe Euskaraldian, eta izateko bizi eta prest zure aho, belarri eta gainerako gor-

putz-adar guztiak. Euskara aldarrikatu, eskatu eta exijitu ere egiten dugulako esparru guztietan, baina gure gertukoenetan erabiltzea askotan ahaztu egiten zaigulako. Oro har, zurekin, eta euskaraz bada, gustura hitz egingo nukeela, alegia.

Total, ezetz, Word dokumentuak zurian jarraitzen du eta niri koloreak ari zaizkit ateratzen. Beraz, hurrena kalean ikusten garenean egin kasu, eta esango dizkiogu elkarri esan beharreko guztiak. Aterako dizut nik zuri-toa.

Idea ona iruditu zitzaidan berriz idazten hastearena. Word dokumentu bat zabaldu eta aurpegira zuri-zuri begiratu didan arte. Nola bete hutsik dagoen orri bat

EGURALDIA



OSTIRALA

Euri giroa berriz ere bueltan. Goizaldean fronte bat sartuko zaigu eta egunaren lehen zatian euri zaparrada mardulak utziko dizkigu eta litro politak pilatuko zaizkigu. Arratsaldean zehar euria gutxitzen joango da, zaparradak geroz eta tartekatuagoak izango dira eta egunaren amaierarako atertu eta ostarteren bat irekiko da. Haizeak ipar-mendebaldek joko du eta maximoek gradutxoaren bat edo beste behera egingo dute, eguneko erdiko orduetan 10-12 gradutan joaz goia.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

diko orduetan 10-12 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Erabat giro garbia izango ez badugu ere, eguraldi lasaia izango dugu. Goizean hodei tapaki handi xamarra egongo da, baina ez du euritara joko eta arratsaldean zehar ostarte batzuk zabalduko direnez, giro atsegina izango dugu. Haizeak aldakor joko du eta tenperaturak gora egingo du, eguneko erdiko orduetan 13-15 gradu bitartean errendituz.

IGANDEA

Giro lasaia eta epelagoa. Hego-haizea itzuliko da, arratsaldean zakar eta horrekin termometroek gora egingo dute, eguneko erdiko orduetan 15-17 graduetara iritsiz. Zeruari dagokionez, goizean giro argiagoa izango da, non ostarte politak izango ditugun eta eguzki tarte politez gozatu ahalko den. Arratsaldean zehar, haizea zarkartzean, hodeiak ugaritzen joango dira eta egunaren amaieran zerua es-talita geratuko da.

OSTIRALA
02



IGANDEA
04



LARUNBATA
03



ASTELEHENA
05



IRAGARKI LABURRAK



LAN ESKAINTZA

Jangelarako. Jangelan aritzeko lan poltsa zabaldu du Kukubil enpresak. Egunean hiru orduz aritzeko lana da, 12:00etatik 15:00etara bitarte. Interesak duenak idatz dezala mezua kukubil0@gmail.com helbidera.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



AZAROAK 02, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

AZAROAK 03, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C.
Korreo kalea, 20
Telefonoa: 943 67 60 13.

AZAROAK 04, IGANDEA IBARRA

Egunekoa. Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

AZAROAK 05, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C.
Korreo kalea, 20
Telefonoa: 943 67 60 13.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

10:00. Asteko onena. Asteazken zehar izan diren elkarrizketa eta solasaldien errepikapena.

16:00. Zebrabidea.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.

16:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.

17:00. Kokondo. Oskar Tenak gidatutako musika saioa.

18:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.

21:00. Playback Ataria. Adriana Gaultierekin.

IGANDEA

10:00. Asteko onena. Asteazken zehar izan diren elkarrizketa eta solasaldien errepikapena.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpena, asteburuko errepasoa, Aitor Mendiluze *kale kantoitik*, Arantxa Izagirre abokatua eta bidaiariaren txokoa

11:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko berriak, Jon Mirandarekin.

12:00. Entzuteko jaiak.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko
ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak
...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa



atariako arkua
zure herriko
jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu
eskatu doan:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



gama altuko 2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin

229€

www.multiopicasgipuzkoa.com   

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Kontsumatutako izenak zure optikan kanpainaren ezaugarriak dira. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



KATILUA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA _____

8 EURO

4 EURO

10 EURO

ATARIKIDEAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTIAK

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA